

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko 2025eko zerga borondatezko epean ordaintzea

Javier Gallego Rodríguezek, Erriberagoitiko Udaleko alkate-lehendakariak,

Jakinarazten du jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2025eko ordainagiriak ordaintzeko moduan daudela.

Borondatezko epea 2025eko urriaren 24tik abenduaren 24ra bitartekoa izango da.

Borondatezko epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko errekaragurekin kobratuko dira, bat etorritik Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Zergadunei gogorarazten zaie banketxe edo aurrezki kutxetan helbideratu dezaketela ordainketa, udal bulegoetan hala eskatuta.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Nola banku helbideratzeen altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Erriberagoitiko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2025eko urriaren 23a

Alkatea

JAVIER GALLEGO RODRÍGUEZ